



3. FUNTSEZKO ELKARTEAK

Lehen esan dugun bezala, gure enpresa **beira bildu** eta hau **eraldatu**ko du. Eraldatutakoarekin, bitxiak eta apaingarriak egingo ditugu eta irabazien ehuneko bat fundazio batera joango da, itsasoak garbitzen dituen espezieak eta ekosistemak salbatzearren (Fundación Biodiversidad).



<https://fundacion-biodiversidad.es/es>

- HORNITZAILEAK

Beira hori lortzeko, ordea, ez dugu beste enpresaren beharrik, hau da, gure hornitzailea ez da enpresa bat izango. Gure helburuetako bat, **biztanleriaren partaidetza** lortzea da baita ere, eta horregatik, gu bezala ingurumenaz arduratzen diren guztiei deialdia egingo diegu haien etxeetan dituzten botila zaharrak edota kontainerretara botako dituztenak gure dendara ekartzeko. Horri esker, gastuak ere murriztuko ditugu, ez diogulako kanpoko beste enpresa bati ezer ordaindu behar.



- BAZKIDEAK

Bazkideez hitz egiten baldin badugu, bost gara enpresa honen ideia eduki dugunak, beraz, bost bazkide izaten hasiko gara. Bakoitzak, gure **gaitasunak** ditugu, eta horren arabera gure postua enpresan desberdina da bana guztiok izango gara guztion zuzendari.

- **PAULA:** Epeak ondo errespetatzen dituenek eta gauzak egunera eramaten dakienez, hornikuntzaz eta banaketaz arduratuko da.
- **ANDONI:** Marrazketarako gaitasuna duenez, gure produktuak diseinatzeaz arduratuko da.
- **LEIRE:** Eskulangile ona denez, bitxiak egiteaz arduratuko da.
- **NAROA:** Pertsona soziala denez, dendan egongo da bezeroekin harremanetan.
- **IRATXE:** Bere informatikarako gaitasunak baliatuz, web gunearen kudeaketa eta diseinuaz arduratuko da.